

## **BEZEROAREKIKO HARREMANAK**

Gure enpresak bi bezero izango ditu. Alde batetik, Euskal Herriko baserriak dira. Haiekin kontaktuan jartzeko eta gure proiektuaren berri izateko, enpresaren enkargatua baserriz-baserri joango da. Honek, hondakinekin haien kabuz bukatzeak dakartzaten arazoei buruz informatuko ditu baserritarrak. Konkretuki, Zigor Kodearen 358. artikulua, zuhurtziagabekeria larria zigortzen duenari buruz.

Ezar daitekeen zigorra, kasuaren inguruabar zehatzak kontuan hartuta, 6 hilabeteko espetxealdiaren eta zenbait urteren artekoa izan daiteke, beste eremu batzuei eragiten zaien kaltearen arabera, bai eta norbaiteri edo jabetzei eragiten zaien arriskuaren arabera ere. Gainera, gurekin harremanetan jartzeko abantailak jakinaraziko ditu; esfortsu barik eta diru gutxi ordaintzearen truke haren hondakinekin bukatu genuke.

Horrez gain, informazio gehiago nahi izatekotan, interneten eskuragarri egongo da web gune propioa. Honen bitartez, bezeroek gure proiektuari buruzko informazio guztia aurkituko dute eta galdera pertsonalen bat izatekotan, gure telefonoa eta e-maila ere agerian egongo da.

Bestalde, gure bigarren bezeroa egurra erosiko diguten enpresak dira. Hauekin kontaktuan jartzeko, haien enpresak bisitatuko ditugu edota telefonoz deitu eta gure proiektua aurkeztuko diegu. Gurekin lan egiteak dakartzaten abantaila buruz informatu ditugu. Gure egurrarekin lan egitekotan merkeagoa aterako zaie egurra erostea eta bestalde, proiektua ekologia izaterakoan, diru laguntzaren bat eskuratzeko gaitasuna ere eduki daiteke (Europar Batasuneko programa "live")